



PRENTSARAKO OHARRA

18/07/18

Foru Aldundia Bilboko Udalagaz, Eusko Jaurlaritzagaz eta hirugarren sektoreko erakundeakaz lankidetzan ari da, Lurraldera ailegetan ari diran migratzaileen gaiari erantzun azkarra emoteko

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko Foru Diputatuak, beste instituzino batzuek azaldu dituen hirugarren sektoreko erakundeakaz lankidetzan, “EAEtik igaroten diran migratzaileei arreta azkarra emoteko” Aldunditik aurrera eroaten ari diran jarduketak azaldu ditu gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietako kontroleko osokoan. Adierazo dauenez, behar hori “gizalegez” egiten dabe, eta “Goihabe programagaz egiten ari ginana osatzera dator”.

Foru Aldundiak lurraldera heldu diran migratzaileei emondako erantzunaren ganean galdetu dauen Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko batzordekideari erantzunez, Aldundiko arduradunak aurrera eroaten ari diran hiru jarduketa motak aitatu ditu.

Beste ezer baino lehen, alkarrizketak egiten ari dira Estaduko Gobernuako Giza Ekintzako Zuzendaritzagaz eta Gobernuak Euskadin daukan ordezkariordetzagaz, “eurakaz batera behar egiteko eta erantzun egokia egituratzeko xedez”; bigarrenez, 30.000 euroko konpromiso ekonomikoa planteau da, “heltzen ari diran lehenengo personei zuzendutako eguneko eta gaueko arretako lehenengo harrerako dispositiboa martxan jarteko”; eta bukatzeko, mugan giza ekintzako prozesuetan beharrean dagozan erakundeakaz koordinazinoa ezarten da.

De Madariaga batzarkideak, barriz, “Euskadi trantsituko lurra dala, baina ez igarotekoa” azpimarratu dau, eta horren inguruan “soluzino estrukturalak” eta “behar besteko baliabide egoki” eskatu deutsoz Aldundiari.

FAMILIAKO HARRERA

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak, De Madariaga batzarkideak berak, adinbakoaren babes juridikoaren lege organikoaren 21.3 artikulua beteteko Gizarte Ekintzako Sailak martxan jarriko dituan neurrien ganean eta Aldundiak 0 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendutako egoitzaratze-erantzunaren inguruan planteautako itaun bati erantzun deutso.

Foru Diputatuak azaldu dauenez hiru harrera mota dagoz: preminazkoa, izaera iragankorra daukien aldi baterakoak eta iraunkorrak. 2017an, adierazo dauenez, 51 harrera iraunkor, preminazko 11 eta aldi baterako 15 gauzatu ziran. 77 harrera horietatik, 39 kanpoko familian izan ziran, eta 38 familia zabalean.

Horri jagokonez, Sánchez Roblesek adierazo dau bere sailetik “egin beharreko esfortzu guztiak” ari dirala egiten, 0 eta 6 urte arteko umeak “ez daitezkan egoitzatako harreran

egon”, harrera eskaintzen dauen familia batean baino. Hori dala eta, iragarri dauenez, “ia seguru”, udagoiengan Foru Aldundiak barrero ekingo deutso harrera familiak erakarteko kanpainari, eta datorren ekitaldian aurrekontuko partidea bideratuko dau, harrera espezializaua aurrera erroteko. Bere eretziz, 0 eta 6 urte arteko umeentzat “egokia” ez dan arren, tipologia hori egokia izan daiteke “familia aurkitzeko gaiztasun asko dituen adinbakoentzat edo anai-arreba taldeentzat”.

Eneritz de Madariaga batzarkideak, Gizarte Ekintzako Sailak aurrera daroan beharrean konfiantza daukala adierazo dauen arren, “hobetzeko aukerea dagola” esan dau.

ZAINZAILIEN ESTATUTUA, MENPEKOTASUNA DAUKIEN PERSONAK ETA LANIEN ETA FAMILIAKO BIZITZEA BUZTARTZEA

Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak EH Bilduren itaun bati eta Talde Popularraren ahozko erantzun-eske biri be erantzun deutse. Arantza Urkaregi EH Bilduko batzarkideak kritikau egin dau Zaintzaileen Estatutuak etxeko beharrak egiten dituen beharginak ez jasotea, hau da, bakarrik zaintzaile informalak kontuan hartzea. “Horreek be zaintzaileak dira, eta gure ikuspuntutik laguntzak eskuratu beharko leukiez”, adierazo dau. “Badakigu gehiago egon badagozala”, erantzun deutso Sánchez Roblesek, “baina lan arloko hartu-emona daukien zainketen beste errealidade horreetan, persona horreen bizitza zaintzeko ardurea daukan erakunde bat dago”.

Beste alde batetik, Eduardo Andrés batzarkide popularrak, menpeko adinekoentzako egoitza-zentroetako 2018ko udako aldi baterako egotaldien ganean galdetu dau. Diputatuak adierazo dauenez, “urtero egiten dan moduan”, behar hori aurton be egiten ari da, “udako hilebeteetako hazkundera ziklikoa dala eta ohiko dinamikaren barruan dagola” ulertuta. Modu berean, Javier Ruiz bozeroale popularrak Lan-bizitza eta familiakoa buztartzea errazteko neurri politikoen ganeko interesa erakutsi dau. Sánchez Roblesek hiru jarduketa eremu bereiztu ditu arlo horretan: barruko dimentsinoa; gugaz behar egiten daben enpresak; eta ganerako enpresak eta gizarteak. Horrez gain, Familien eta Hautzaroren aldeko Euskal Itunagaz daukan konpromisoa berretsi dau.

BERDINTASUNA KULTUR JARDUERETAN

Lorea Bilbao Euskera eta Kultura Foru Diputatuak, Elsa Pamparacuatro Podemos Bizkaia taldeko batzarkideak eskatuta, bere arloan bardintasunari jagokonez aurrera eroan behar diran helburuak edo jarduketak zeintzuk diran zehaztu ditu. Bilbaok esan dauenez, momentuz, Bizkaikoak bere Bardintasuneko Plan Orokorra onetsi dau, eta gaur egun erakundeko parte diran museoen zuzendaritzen %66 emakumezkoen esku dago.

Aurrera erotean ari diran jarduketan artean, emakumeak aretoetan daukan presentzia nabarmentzea azpimarratu dau; horrez gain, Europako Ondarearen Urte Kulturalari jagokonez, “emakumeen ekarpenaren ganeko egitarau berezia antolatu da, 250 jarduera ingurugaz”. Ganera, diputatuak gogoratuazo dauenez, laguntza guztiek genero eraginaren ganeko txostena jasoten dabe.

EAI ERRAILAK, AP-68-KO BIDESARIA ETA KAMIOIEN IGAROTZEA BERANGOTIK

Nuria Atienza Podemos Bizkaia taldeko batzarkideak EAI errailen ganean egindako itaunari erantzunez, Imanol Pradales Ekonomia eta Lurralde Garapeneko diputatuak

azaldu dauenez, baldintza bi beteten badira baino ezin izango dira ezarri. Alde batetik, errepide sarea mailatuta egotea eta, bestetik, autoetan doan gitxieneko persona kopurua kontrolatan dauen teknologia eskuragarri egotea.

Modu berean, Berango erdigunetik kamioiak igaroteari eta AP-68 autopistaren bidesariei buruz EH Bilduk eta Talde Popularrak egindako ahozko erantzun-eske biri erantzun deutse. Lehenengo gaiari jagokonez, Aldundiko arduradunak argitu dauenez, “2001eko apirilaren 4an BI-3737 errepidea Berangoko Udalaren esku laga zan”. Hori dala eta, Foru Aldundiak “ez dau ezer baimendu”. Bigarren gaiaren ganean, AP-68 autopistaren titularra Estadia dala esan dau eta, hori dala eta, ezinezkoa dala Araban hartutako hobari neurri berak errepiketean.

SARBIDEA ENPLEGU PUBLIKORA

Javier Ruiz Talde Popularreko bozeroalea izan da osokoa zabaldu dauena, Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreari enplegu publikora sartzeko prozesuen ganean zuzendu deusan itaunagaz. Ruizek adierazo dauenez, gaur egun aurrera eroaten diran prozedurek “zelanbaiteko ikutu politikoa daukien kontratazinoak egiteko giroa eskaintzen dabe”, eta “prozesuaren objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatuko dauen” kontratazino sistema eskatu dau.

“Lortu gura dana zalantzak sortzea danean, azalpenak emotea gaitza da”, aurpegiratu deutso Bengoetxeak. “Ez dau emoten ezelango neurri politikoa hartu daitekenik aukeraketa prozedurak arbitrarioak ez diranean, araututa dagozanean eta Aldundiko sektore publikoak bete egiten dituanean”, adierazo dau, bukatzeko.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA BASOKO ZAINZAN

Horrez gain, Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko diputatuak, Podemos Bizkaiak planteautako erantzun-eskeari erantzunez, barrero be esan dau Aldundiak bete egiten dauela, hutsune barik, Bizkaiko basozainen kanpoko indarkeriaren protokoloan ezarrita dagona.

18/07/18

Diputación Foral colabora con el Ayuntamiento de Bilbao, el Gobierno Vasco y entidades del tercer sector para dar una respuesta rápida a la llegada de migrantes al Territorio

La Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha detallado esta mañana en el pleno de control de las Juntas Generales de Bizkaia, las actuaciones que desde la Diputación, en colaboración con otras instituciones y entidades del tercer sector, se están realizando para dar “una respuesta de rápida atención a las personas migrantes en tránsito de la CAV”. Un trabajo, que según ha manifestado, realizan “por condición humanitaria” y que “viene a completar lo que estábamos haciendo con el Programa Goihabe”.

En respuesta a la apoderada del grupo Podemos Bizkaia, Eneritz de Madariaga, quien le había preguntado por la respuesta de la Diputación Foral a la llegada de personas migrantes al territorio, la responsable foral ha enumerado los tres tipos de actuaciones que se vienen realizando.

En primer lugar, conversaciones con la Dirección de Acción Humanitaria del Gobierno del Estado, además de con la subdelegación del gobierno en Euskadi, “al objeto de trabajar con ellos y articular una respuesta adecuada”; en segundo lugar, el planteamiento de un compromiso económico de 30.000 euros “para la puesta en marcha de un dispositivo de primera acogida de atención diurna y nocturna a las primeras personas que están llegando”; y por último, el establecimiento de una coordinación con las entidades que llevan trabajando en procesos de acción humanitaria en frontera.

La apoderada De Madariaga, sin embargo, ha incidido en que “Euskadi es una tierra de tránsito pero no de paso”, y a este respecto ha solicitado a la Diputación “soluciones estructurales” y recursos “suficientes y adecuados”.

ACOGIMIENTO FAMILIAR

La Diputada Foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha dado respuesta a una interpelación planteada también por la apoderada De Madariaga sobre las medidas que pondrá en marcha el departamento de Acción Social para dar cumplimiento al artículo 21.3 de la Ley orgánica de protección jurídica del menor y la respuesta residencial actual de la Diputación para los menores de 0 a 6 años.

La Diputada Foral ha explicado que existen tres tipos de acogimiento: de urgencia, temporales de carácter transitorio y permanente. En 2017, tal y como ha asegurado, se formalizaron 51 acogimientos permanentes, 11 de urgencia y 15 temporales. De esos 77 acogimientos, 39 fueron en familia ajena y 38 en familia extensa.

En este sentido Sánchez Robles ha manifestado cómo desde su departamento se están haciendo “todos los esfuerzos” para que los y las menores de 0 a 6 años “no se encuentren en acogimiento residencial” y lo hagan en uno de familia acogedora. Por ello ha anunciado que “con toda probabilidad” en otoño la Diputación Foral recuperará la

campaña de captación de familias acogedoras, así como la disposición de una partida presupuestaria en el próximo ejercicio para el desarrollo del acogimiento especializado. Una tipología que, si bien no considera “idónea” para niños y niñas de entre 0 y 6 años, podría dar respuesta a “perfiles de menores que tienen muchas dificultades para encontrar una familia o a los grupos de hermanos.

La juntera Eneritz de Madariaga, si bien ha manifestado su confianza en el trabajo desarrollado por el departamento de Acción Social, “hay oportunidad de mejora”.

ESTATUTO DE PERSONAS CUIDADORAS, PERSONAS DEPENDIENTES Y CONCILIACIÓN DE LA VIDA LABORAL Y FAMILIAR

La Diputada Foral de Acción Social ha respondido también a una interpelación de EH Bildu y a dos preguntas orales del Grupo Popular. La apoderada de EH Bildu, Arantza Urkaregi ha criticado que el Estatuto de Personas Cuidadoras no incluye a las trabajadoras del hogar al acoger únicamente a las personas cuidadoras informales. “Son también personas cuidadoras y desde nuestro punto de vista deberían poder acceder a esas ayudas”, ha manifestado. “Sabemos que hay más”, ha replicado Sánchez Robles, “pero en todas esas otras realidades de cuidados donde media una relación laboral hay una institución competente responsable de velar por la vida de esas personas”.

Por otra parte, el apoderado popular Eduardo Andrés ha preguntado por sobre la atención de las demandas de estancias temporales para personas mayores dependientes durante los meses estivales del 2018. Un trabajo, que según la Diputada están realizando “como cada año” entendiéndose que “el incremento en el periodo estival es cíclico y está incluido en la dinámica habitual”. De igual manera, el portavoz popular Javier Ruiz se ha interesado por las medidas políticas para facilitar la conciliación de la vida laboral y familiar. Sánchez Robles ha diferenciado tres ámbitos de actuación en este sentido: dimensión interna; empresas que trabajan con nosotros; y resto de empresas y sociedad. Asimismo ha reiterado el compromiso con el Pacto Vasco por las Familias y la Infancia.

LA IGUALDAD EN LAS ACTIVIDADES CULTURALES

La Diputada Foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha detallado a petición de la apoderada de Podemos Bizkaia, Elsa Pamparacuatro, cuáles son los objetivos o actuaciones que en materia de igualdad se van a llevar a cabo en su ámbito. Bilbao ha manifestado que, por el momento, Bizkaikoa ha aprobado su Plan General de Igualdad, y que actualmente el 66% de las direcciones de los museos que forman parte de la entidad, corresponden a mujeres.

Entre las actuaciones que se están llevando a cabo está la de hacer más visible la presencia de la mujer en las salas; además respecto al Año Cultural de Patrimonio Europeo, “se ha organizado un programa específico sobre la aportación de las mujeres con alrededor de 250 actividades”. Asimismo ha recordado que todas las ayudas incluyen un informe de impacto de género.

CARRILES VAO, PEAJE EN LA AP-68 Y PASO DE CAMIONES POR BERANGO

En respuesta a una interpelación de la apoderada de Podemos Bizkaia, Nuria Atienza, sobre los carriles VAO, el Diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha explicado que éstos sólo podrán implantarse si se cumplen dos premisas. Por

un lado, que la red de carreteras esté mallada y por otro lado, que la tecnología que controla el número mínimo de personas que ocupan los coches esté disponible.

De igual manera ha respondido dos preguntas orales planteadas por el Grupo Popular, sobre las obras acometidas en el Término Municipal de Berango a consecuencia del paso de camiones, y por EH Bildu sobre los peajes de la AP-68. Respecto a la primera cuestión el responsable foral ha aclarado que “la BI- 3737 fue cedida al Ayuntamiento de Berango el 4 de abril de 2001” y que por lo tanto la Diputación Foral “no ha autorizado nada”. En cuanto a la segunda cuestión, ha explicado que el titular de la AP-68 es el Estado y que por lo tanto es imposible replicar el mismo carácter de medidas de bonificación adoptadas en Araba.

ACCESO AL EMPLEO PÚBLICO

El portavoz del Grupo Popular, Javier Ruiz, ha sido el encargado de abrir la sesión plenaria con una interpelación dirigida a la Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, sobre los procesos de acceso al empleo público. Según Ruiz los procedimientos que actualmente se llevan a cabo “son un caldo de cultivo para contrataciones con cierto sesgo político”, y ha solicitado un sistema de contratación “que garantice la objetividad e imparcialidad del proceso”.

“Es difícil explicar cuándo lo que se quiere es generar duda”, le ha achacado Bengoetxea. “No parece que proceda adoptar ninguna medida política en tanto en cuanto los procedimientos de selección no son arbitrarios sino que están reglados y el sector publico foral los cumple”, ha manifestado finalmente.

PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORABLES EN LA GUARDERÍA FORESTAL

Asimismo, la Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha vuelto a reiterar, en respuesta a una pregunta planteada por Podemos Bizkaia, un cumplimiento por parte de la Diputación y una falta lagunas en lo que protocolo de violencia externa en la guardería forestal de Bizkaia se refiere.